

Goierri tarra

353. zenbakia 2009ko urtarrilak 16


ENIRIO ARALAR MANKOMUNITATEAK 600 URTE

ALTAMIRA
JATETXEA



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net



reklone

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Palestina



Aitor Sarriegi

Mendeak joan, mendeak pasa
eta ulertzen ez da erraza
guk Ekialde hurbil deituan
bizi duten anabasa. (bis)
Israelek bere baza
sasibiktimaren traza
baina hau ez da jolasa
Urte berria hastearekin
odolez busti da Gaza
eta mundua so dago ea
konpontzen den bere kasa. (bis)

Autodefentsa nola izan ba!
eraso hutsa dinbi ta danba
genozidio horren testigu
mundu erdia izan da. (bis)
Palestinarren demanda
pasa dezagula langa
eta hartu gure txanda
Guztiok gaude beraien alde,
guztiok hitza emanda
baina mundurik ez da konpontzen
etxeko sofán etzanda. (bis)

Doinua: Naufragoarena

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbalde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Jone Ormazabal Zabaleta

5. Ingurugiro txokoa: Ur birtuala.

6. Euskara txukuntzen: Ze hitz bai...
eta ze hitz ez! (III)

7. Aholkua: Dibortziatuta nago, nork
ordaindu behar du...

8. Erreportajea: Enirio Aralar
Mankomunitateak 600 urte.

14. Garai batean: Aralar mendiko
kontu bitxiak.

16. Elkarrizketa: Eñaut Tolosa
zinemaren munduan ate joka.

19. Elkarrizketa: Angel G. Katarain.

24. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Jone Ormazabal Zabaleta
XIII. Gerriko Ikerlan-beka 1. saria
"Goierriko egitura industrialaren
erradiografia" liburuko ondorioak

Globalizazioa, lehiakide berriak, enpresa erraldioen bateratzeak, lasterketa teknologikoa, merkataritza-mugen desagerpena, ekoizpenaren deskokatzeta... Eraldaketa-prozesuan murgildurik dago industria, eta horrek gizarte konfigurazio berria ernaltzea ekarri du. Eta testuinguru aldakor horretan, Goierri eskualdeak, tradizionalki, industrian oinarrituriko ekonomia du. Etorkizunera begira, ordea, gai izango ote da Goierri eskualdea errealtate horretara moldatzeko? Hain zuzen, horixe da aurkezten zaion erronka nagusia, marko berri horren aurrean egokitzen gaitasuna erakustea, alegia.

Aurreikuspen-lanak zailtzen ari dira azkenaldi honetan, aldaketak bata bestearen atzetik baitatoz oharkabea. Horregatik, arestian luzaturiko galderari erantzuna bilatzeko asmoz, Goierriko industriad munduan adituak direnei nolabaiteko prospekzio bat egiteko eskatu zitzaion. Galdera bota eta euren aurpegiak ikuste besterik ez zegoen, galderaren konplexutasunaz jabetzeko. Nolanahi ere, gehiago bat baikor agertu zen, Goierri beti izan omen da industriari dagokionean erreferenteetako bat, Gipuzkoan pisu itzela omen du eta bide beretik jarraituko duela deritzote. Elkarriketatu batek zionez, goierritarrok beti egin diegu aurre egoera zaili eta aurrerantzean ere halaxe gertatuko da.

Dena den, etorkizunean gertatuko dena asmatzerik ez dago; horregatik, erronka gainditzeko Goierriko izango dituen giltzarriak identifikatzeari ekin go diogu, ahal den neurrian, behin ik-behin. Horietako bat, ezbairik gabe, hezkuntza da. Arlo honi eskainitako

Erronka eta giltzarriak

atalean ikusi dugunez, Goierriko Lanbide Eskolak erantzunkizun handia izan du industriaren garapenari dagokionean. Elkarriketatu batek zionez, eskualdean beti izan da prestatua izan nahia eta hori aprobetxatu beharra dago. Izan ere, hezkuntza hobetuz bakoarik izango da posible eskualdearen etorkizunaren norabidea erabakitzeak aukera lortzea. Hori dela eta, gizarte-proiektua aurrera eraman nahi bada, ezinbestekoa izango da uneoro ikasten jardutea. Hezkuntzak, hain zuzen, bi helburu bete behar ditu: bata eraginkortasuna ziurtatzea; bestea, berriz, etorkizun berriaren sustapen izango den balio-multzoa transmititzea.

Bigarren helburu horri helduz, balio-multzo horren transmisioak duen garrantzia azpimarragarria da; izan ere, oraingo haurrak, gaur egun pantiailari itsatsirik dauden horiek, izango dira etorkizuneko enpresak bideratuak dituztenak.

Beste giltzarrietako bat, eta ahoz aho entzuten dena gainera, berrikuntza izango litzateke; eta horrekin batera teknologia-aurrerapena. Txostenean zehar errepikatu dugunez, Goierriko industriaren egituraren badaude oso indartsuak diren zenbait enpresa handi. Hauek mundu-mailako lehia bizian kokatzen dira eta, beraz, gauza jakina da horien kasuan teknologia-aurrerapenak eta ikerkuntzari bideraturiko inbertsioak ikaragarriak izaten direla. Lantegi txikiei dagokionez, nazioarteko merkatuan aritzeak suposatzen duen estutasunik ez duten arren, azpikontratazioa eskaintzen dieten enpresa indartsu horiek egiten dieten presioa ez da nolanahikoa. Horregatik, etorkizunerako giltzarritzat aurreikusten da enpresa handi horien produktioan parte hartzen duten eta industria-ehunean gehiengoa diren enpresa txiki eta ertainen teknologia-hobekuntza.

Merkataritza-mugen desagerpena bizitzen ari garela aipatu da lehenago ere eta, ondorioz, nazioarteko merkataritza oso kontuan izateko arlo bilakatu dela. Goierriko kasuan, kanpo-merkataritzaren jardura indartu beharreko guneztat hartu behar da. Goierriko industria oso dinamikoa delako, maila teknologiko altua duelako eta zentzu horretan hazkunde-prozesuan dagoelako. Oraingoan ere, enpresa

txiki eta ertainak dira atzera geratzen ari direnak; horregatik, euren arteko elkarlana izango litzateke tresnarik eraginkorrena.

Izanak izan, Goierri eskualdeak, teknologia-arloan ikusi den moduan, gainerako beste arlo batzuetan ere egokitze-gaitasuna erakutsi du. Horrez gain, sektore batzuetan bereziki, kalitate handiko produktuak ekoizten dira, nazioartean ospe itzela dutenak. Kalitatearena, hain zuzen, Goierriko enpresetan oso barneratua dagoen atala da eta oso ondo jakin izan dute kalitate-eskakizun berriei moldatzen. Horrenbestez, adituek ziotenari eutsiz, badirudi Goierriko industriak aipaturiko giltzarri horien arrastoa jarraituz datorkigun industria-egituraketa berri horri egokitze gaitasuna erakutsiko duela.

Horretarako, ezinbestekoa izango da sare instituzional indartsu baten babesa. Izan ere, Goierri eskualdean Goieki eta Goierriko fundazioaren moduko erakundeek eskualdearen garapenean bete duten egiteko oso garrantzitsua izan da, bai eragile ekonomikoak elkartzeko garaian eta baita enpresentzako zerbitzuak eskaintzeko garaian ere.

Baina hazkunde-bide horretan, badago ahaztu ezin daitekeen beste giltzarri bat ere, orekarena, alegia. Garapen bortitz eta bizkorrek eskualde desorekatua sortzen baitu; horregatik, pausoak poliki eta eskualdeko beharrei bideratuta eman behar dira. Garbi dago, bere garaian puntako industriaren aldeko apustua egin zela eskualdean eta horren ondorioz landa-eremuak nolabait baztertuak geratu zirela. Horregatik, aurreko atal batean aipaturikoa gogoratzea ez legoke gaizki, hots, lurraldearen egitura orekatua bideratzeko garaian landa-eremuak guttiz estrategikoak direla kontuan hartzen bada, oreka lortzeko eta ingurumena zaintzeko orduan, ezinbesteko zeregina dutela. Hortaz, elkarriketaturiko goierritar batek esandakoari helduz, lehen sektoreari bultzada eman beharko genioke, nekazariari erraztasunak eman. Horrek mundu globalizatu honetan nolabaiteko bertakotasuna mantentzea ahalbidetuko baitu. Aipaturiko hark zionez, krisiak doazen moduan etorriko dira, baina beti ere lurra emana jango dugu.


Ur birtuala

Ur birtuala izenak ordena-gailuekin edo internetekin zerikusia duela iruditu arren, kontzeptu honek ez du gai horiekin erlaziorik. Aldiz, eta mundu geroz eta globalizatuago batean bizi garenez, uraren "salerosketarekin" dago lotuta. Ur birtualak botilan erosten dugun ura baino ur gehiago erosi eta saltzen dugula argi uzten du. Askori gezurra iruditu arren, gutariko bakoitzak ur birtuala kontsumitzen du gure eguneroko bizitzan.

Ur birtuala, zer da?

Baina txorrotan ez ezik, gizakiak ekoiztutako edozein produktu kontsumitzen dugunean ur kontsumo bat egiten ari gara. Zer esan nahi da ba ur birtuala terminoarekin? Hitz honekin kontsumitzen dugun produktu bakoitzaren atzean dagoen ur kontsumo osoa adierazi nahi da.

Ur birtuala terminoa 90. hamarkadan sortu zen terminoa da, eta 2003. urtean J. A. Allaneek honela definitu zuen lehen aldiz: produktuek duten ura da; hau da, produktu bat sortu ahal izateko erabili den ur guztia da ur birtuala. Edozein nekazal edo industri produktu sortzeko ura erabiltzea beharrezkoa da. Konturatu ez arren, erosten dugun edozein jakiren atzean ur kon-



tsumo bat dago. Adibidez, oilasko haragi kilo bat ekoiztu ahal izateko 6.000 litro ur erabili direla kalkulatu da; baso bat esne produzitzeko ordea (200 ml) 200 bat litro ur; eta kilo bat gari ekoizteko 1.500 litro ur. Baina uraren kontsumoa ez da soilik jakietara mugatzen. Beste adibide sinple bat ematearren, algozko kamiseta bat sortzeko guztira 4.100 litro inguru behar izaten direla kalkulatu dute adituek.

Aztarna hidrikoa

Azaldutako ur birtual terminoarekin lotuta, beste hitz bat ere erabiltzen da: aztarna hidrikoa. Azken honekin herrialde batek egiten duen ur gastu erreala kalkulatu

posible da, eta hau honela kalkulatu da: herrialde baten zuzeneko ur kontsumoa gehi inportatzen duen ur birtuala, ken esportatzen duen ur birtuala.

Beraz, zuzenean ez bada ere, hau da, txorrotan ireki gabe, gizakiok ura kontsumitzen dugu. Gurea bezalako gizarte garatu batean, ur hau "erosi" egiten da. Gaur egun garraioaren kostua horren txikia denez, produktu asko kanpotik ekartzen dira: zerealak, fruitak, barazkiak, arropak..., baita industriaren sortutako hainbat produktu ere. Herrialde aberatsenak honelako produktuak erosteko adina diru dutenean jakiak ekoizteko baino, ura beste ekintzetarako erabiltzea bideratzen dute, besteak beste, aisialdirako (turismoa) edota industriarako. Beraz, esportatzen dituzten produktuak ekoizteko ur asko kontsumitzen duten herrialdeek ura esportatzen dutela esan daiteke.

Arantxa Bodego

JAKIN BEHARREKOAK

2003 uztailak 30 indarrean sartu zen europar araudi berrian **"creosota" erabiltzea eta berarekin tratatutako egurrak saltzea debekaturik dago**, osasunean eta ingurumenean sortzen dituen kalteengatik. Adibide gisa Huescan gertaturikoa: Sustapen Ministerioak 5.000 trenbideko trabies ipini zituen hiri hau zeharkatzen duen korridore berdean. "Ecologistas en Accion" araudia betetzeko eskaria eginez Ministerioak trabiesa hauek kenduko dituela adierazi du.

Nabarmen hazi da Europan landare inbaditzaileen kopurua. Gutxienez hirukoiztu egin da azken 25 urteotan.

Inurri arraroa aurkitu dute Brasilgo basoetan.

Adituen ustez, aintzinako inurrien itxura eta ezaugarriak ditu, horregatik da aipagarria aurkikuntza. Espezie berria izateaz gain, sailkapen taxonomikoan adar berria zabaldu du. Begi gabeko izakia da, lurpeko animalia. Martialis heureka.

LIBURUA

¿En que estamos fallando? Jorge Riechmann Coord. Ed. Icaria. Azpititulua "Cambio social para ecologizar el mundo". Hainbat idazleen artean idatzirikoa liburuak gure gizartean dagoen kontraesanaren inguruko hausnarketa da; ingurumenaren aldeko interesa handiagotzen ari da baina ekintza antiekologikoak dira nagusi.

Produktu bat sortu ahal izateko erabili den ur guztia da ur birtuala.

Ze hitz bai... eta ze hitz ez! (III)

(Euskara batuan)

Maizpide
euskaltegia

Euskara batuan zuzenak izan ez arren, badira zenbait hitz, hainbat arrazoi direla medio, behin eta berriro erabiltzen ditugunak. Zein hitzez ari garen jakin dezazuen, erreparatu eskuineko zutabeari (ezkerrekoan forma zuzena agertzen da):

✓ Zuzen	✗ Oker
Mahuka-Hutsik	Makutsik
Mahuka	Mauka
Ministroa	Ministraria
Lubakia	Luebakia
Mota	Moeta
Kisketa	Krisketa
Meatzea	Mehatza, Mehatzea
Txotxongiloa	Marioneta
Barraskiloa	Marraskiloa
Zeramika	Keramika
Lapurreta	Lapurketa
Kameleoia	Kamaleoia
Leizea, kobazuloa	Lezea
Kuxina	Kojina
Malezia	Malizia
Gitarra	Kitarra
Merkealdia	Merkaldia
Merkatu	Merketu
Krokodiloa	Kokodriloa
Ohatzea	Litera
Makillajea	Makilaia
Itogina, itaxurra	Itotea
Kartsua	Gartsua
Giharra	Giharrea
Jakite maila	Ezagupen maila
Istant	Ixtante
Maila	Mail
Lihua	Linoa, linua
Digestioa	Liseriketa

Gorotza	.Korotza
Bakailaoa	.Makailaoa, makailua
Muztioa	.Mustioa
Dilista	.Lenteja
Maitekorra	.Maitakorra
Narrasa	.Narratsa
Marmelada	.Mermelada
Pneumonia	.Neumonia
Ebakuntza-gela	.Kirofanoa
Pneumatikoa	.Neumatikoa
Mantentzea	.Mantenimendua
Muskulua	.Muskulua
Laurogei	.Larogei
Kartoi mehea	.Kartulina
Mespretxatu	.Mesprezatu
Narrastia	.Narrastia
Koñaka	.Koinaka
Mugitu	.Mogitu
Masajea	.Masaia
Nahitaez (nahi eta nahi ez)	.Nahitanahiez
Lixiba	.Lisiba
Motorra	.Motorea
Koskortu	.Kozkortu
Metrailatu	.Ametrallatu
Jaitsi	.Jatsi, jeitsi
Flanela	.Franela
Jaiki	.Jeiki
Frontea	.Frentea
Hortzetako pasta	.Hortz-orea
Kanoia	.Kainoia, kañoia
Munstroa	.Monstruo, mustroa
Nabigatzailea	.Nabigarria
Mutina	.Motina
Gamelua	.Kamelua
Irakasle-eskola	.Magisteritza-eskola
Irakasle-ikasketak	.Magisteritza

Laurogei metroko
kameleoi horren
ondorengoa dirudin,
neska!

Makillaje gehiegi
emango nian,
beharbada!



Bi kameleoi eder berriketan...

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Josunek magisteritza egin zuen Donostiako magisteritza eskolan.
2. Aduriz sukaldariak, makailao goxoa prestatu ondoren, lenteja-sorbetea eskaini zigun liseriketa ondo egiteko.
3. Australiako kokodrilo-ehiztari ospetsua kamelu gainean ere ibili zen,
4. Leize horretan laurogei metroko kameleoia ezkutatzen omen da.
5. Indaleziori, koskortu zenean, koñaka edaten utzi zioten aitona-amonek.

OHARRA: lehenengoan, *Josunek irakasle(-)ikaske-tak egin zituen Donostiako irakasle(-)eskolan* behar du; bigarrenen, *bakailao goxoa, dilista-sorbetea eta digestioa*; hirugarrengan, *krokodilo-ehiztari* eta *gamelu*; laugarrena eta bosgarrena zuzenak dira.

Nork ordaindu behar du...

Orain dentista? Eta musika eskola?

Banantze zein dibortzio baten ostean bulegoan ohizkoa den galdera batieran tzuna ematen saiatuko naiz hurrengo lerroetan: umearen gastuetatik, zeintzuk izango dira mantenu-pentsioaren kontura, eta zeintzuk erdibana ordaindu beharreko ez-ohizko gastuak?

Hain gai interesgarriari buruzko epai mordoa aztertuta, esan genezake zenbaitetan epaile ezberdinen ebazpenen artean alde nabaria egon daitekeela, baina hala ere hainbat ondorio atera daitezke:

Ez-ohizko gastuak dira mantenu-pentsioa ezartzekoan (bai epaileak zehaztuta bai ezkontide ohiek Hitzarmenean adostasunez jasotakoa) aurreikusi ez diren gastuak. Beraz garrantzitsua da gastuen ez-ohizkotasuna zehazteko horiek sortutako unea aztertzea, zein den pensioa ezartzeko momentuaren egoera.

Adibidez, mantenu-pentsioa ezartzean umea iada musika-eskolara joaten bada, gastu hori kontutan hartua izango da pensioa ezartzean, eta beraz ohizko gastua izango da, mantenu-pentsioaren bitartez ordaindu beharrekoa. Eskolaz kanpoko jardueraren bat hasi behar badu, adibidez, pensioa ezarri zenetik bi urtetara, orduan ez-ohizko gastua izango da, ezin zelako aurreikusi zerbait berria den heinean.

Eta orduan, ez-ohizko gastua bada, erdibana ordaindu behar al da beti, %50ean? Erantzuna ez-ohizko gastu horren beharrezkotasunaren arabera izango da. Adibidez, umea hortzetako aparailua jartzeko bazaio, beharrezkoa izanik eta Gizarte Segurantzak hura ordaintzen ez duelarik, erdibana ordaindu beharrekoa izango da. Beharrezkoa ez den gastu ba-

ten kasuan, adibidez, ludotekaren kuota, bi gurasoak ados egon beharko dira, haietako bat ados ez dagoe-nean ezin zaiolako ordainketa galdatu.

Ikus dezakegunez, eskolaz kanpoko jarduerak ez dira beti ez-ohizko gastutzat jotzen, eta beraz ez dira beti erdibana ordainduko. Kontzeptu bakoitzarentzako azterketa egin beharko da, eta familia bakoitzaren testuinguruan, honakoa zehaztu beharko da:

- Denbora. Mantenu-pentsioa ezartzeko unearen egoera.
- Aurrikusgarritasuna. Ea momentu horretan gastua aurrikusgarria zen ala ez.
- Beharrezkotasuna. Gastua beharrezkoa zen ala ez.

Mantenu-pentsioaren igoera zein egoeratan eskatu dezakegun hurrengo artikuluko batean azalduko dut.



Monika Larrañaga
Gertu aholkularitza
Beasain

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Jose Agustin Jauregi

Promozioak, Eraikuntzak, Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com **www.ondoeta.com**

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

600 urte beteko ditu azaroan Enirio-Aralar Mankomunitateak



Urteurren potolo-potolo ospatuko du 2009. urtean Enirio-Aralar Mankomunitateak: 6 mende edo 600 urte. 15 herrik osatzen dute Mankomunitateak, historia eta istorio ugari ditu el-

karteak. Alfredo Moraza historialaria Mankomunitateari buruzko liburua prestatzen ari da eta laburpentxo bat egin digu ondorengo lerrootan. Ospakizunak, maiatzetik aurrera izango dira.

ARANDIA GARAJEA

LADA **SSANGYONG**

Autoen konponketa

N-1, z/g Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47



☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 **ORDIZIA**

AUSO EGI

ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak



Amezketako Batasuna edo Bozue Nagusiaren eta Ordiziako Batasunaren edo Bozue Txikiaren artean egindako hitzarmenarekin sortu zen Enirio-Aralar Mankomunitatea, 1409ko azaroaren 14an. Enirio-Aralar mankomunitatea hamabost herrik osatzen dute: Bozue Nagusiko Amezketak, Abaltzisketa, Baliarrain, Ikaztegieta, Orendain; eta Bozue Txikiko Ordizia, Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Lazkao, Legorreta eta Zaldibia. Bi Bozueak, %50ean banatu zituzten eskubideak.

Herriez gain, inguruko herrietako jauntxo batzuek ere bazituzten eskubideak: Lazkaokoak, 14 saroi zituen; Amezketakoak 12 saroi, Zaldibiako Garcia Lopez de Urtesabelek 4 eta Al-

tzoko Aizpek 5. Orreagako Kolegiatak ere bazuen Aralarreko eremuez gozatzeko aukera; 14 saroi zituen Beaskin, Pagabe eta Igaratzan.

Sorreraren arrazoia

Mankomunitatearen lehenengo azarnak, XIV. mendeko erdialdekoak dira, 1340. urtekoak. Oñatiko Beltran Ibañez de Gebarak bere arreba Estefania Gebarari "las bustalizas que he en Aralar y Anislarrea" eman zizkiola aipatzen baita. Estefania hiltzean, Orreagako Kolegiataren esku geldituko ziren.

Dena den, XV. mendean izan zen gertakaririk esanguratsua: 1400. urtean, Enrique III. Gaztelako erregeak, Ojer Amezketari Amezketako eta Lazkaoko jauntxoari, "todos los mos-

trencos é erbajes de Aralar é de Henirio" eman zizkion. Bozuetako herriek erregearen erabaki honen aurka protesta egin zuten. Epaitegira iritsi zen auzia. Baina azkenean, Ojer Amezketak eta Amezketako eta Ordiziako Bozueak lagunarteko akordio sinatu zuten. Bi Bozuetako 15 herriek 1.400 urrezko florinen truke eskuratu zituzten lur horiek. 1409ko azaroaren 14an sinatu zen eskritura eta data horretan esan daiteke sortu zela Enirio-Aralar Mankomunitatea. "Berez mankomunitatea aspaldikoa izango zen. Mendia gozatzeko edo ustiatzeko era bat da. Momentu horretan, 1400 inguruan, Gaztelako Erregeak, Amezketako jauntxoari emango dizkio. Kondadu bat bezala edo bere zerbitzuei esker, mendi guztia ematen dio. Insustiko mendia ere ematen dio. Beste mankomunitate txiki bat zegoen Zaldibian, Lazkaon eta Ataunen. Baina bertan betidanik erabili zuten herrien artean eta Amezketako jauntxoaren artean, txoke

bat sortzen da. Txoke horren ondorioz, 1409an eskritura bat egin zuten, erosten diotela nolabaitean, beraiena zena, eskubideak erosten zituztela. Ofizialki hori da mankomunitatearen sorrera", zehaztu du Alfredo Moraza Aranzadi Zientzia elkarteko kideak.

Iskanbila ugari

Urte hauetan guztietan gorabehera ugari izan da. "Gehienbat, bi mankomunitateen artean sortzen ziren liskarrak eta bi mankomunitateak, inguruko herriekin. Nafarroarekin izugarriak izan dituzte, nahiz eta akordio bat eduki. Gutxigorabehera badakizu marra non dagoen, baina ardi bati edo behor bati ezin diozu esan hemendik ez pasa. Harrapaketak egoten ziren, 'carnizak' deitzen zaie. Herrien arteko pikeak: beti egon izan dira. Aberatsa baldin bada Aralarako mankomunitatea, pike asko daudelako da. Pike horiek sortzen dituzte pleitoak eta pleitoek frogatzen dute. Zentzu horretan, izugarriz-

Amezketako eta Ordiziako Bozuearen
edo Batasunaren artean egindako
hitzarmenarekin sortu zen.



Basoaren desagertzea

Gaur egun Aralarrek duen itxurarekin ez zuen zerikusirik duela 200 urtekoa. Basoa zen nagusi, baso trinkoa. “Orain baino askoz ere baso gehiago zegoen. Pagoak, hurritzak, haginak... basoa askoz ere trinkoagoa izango zen. Mendiaren benetako aldaketa, azken 200 urteetan izan da. Orain ikusten dugun irudia, zelai handiak, aspal-diko kontua zela pentsatzen genuen, baina ez. Orain saroi asko ikusten ditugu, saroi luzeak baina ez ziren horrela. Ikerketa arkeologikoa egiterakoan, erabilitako egurra azaltzen da, gaur egun ikusten ez direnak. Haginak adibidez. Egia esanda, aldaketa aspal-diko kontua dela baina ez da horrela. Basoa, XVIII. mende bukaeran hasi zen ustiatzen Aralarren, baina gehienbat artzain-tza egon da”, argitu du Alfredo Morazak.

Hiru elementuk eragin zuten basoaren desagertzearen: ardiak, ikatzak eta meategiak.

Ardiak

“Aldaketa nabarmena XVIII. mendetik aurrera eman zen, artzaintza, ardiak, nagusitu ziren. Ordura arte behiak, txerriak eta behorrak nagusi ziren. XVIII. mendetik aurrera aldaketa nabarmena ematen da: ardia sartzen da, era masibo batera. Lehen ere egongo ziren, baina gutxiago. Ardiak sartzerakoan, zelaia behar dute. Orduan, lehen zegoen basoa garbitzen joango dira, terrenoaren ustiaketarako eta basoa atzera egiten. Behiek eta ardiek behar ezberdinak dituzte. Behiak itzala behar du, beste belar mota bat. Ardiak, zelai luzeak behar ditu, belar goxoagoa. Hori lortzeko jakina, basoa bota egin behar zen”.

Baina noraino zegoen basoa? “Ia-ia goraino egongo zen. Gainekalde guztia eta ingurua, basoa izango zen, baso trinkoa. Gaur egun ardiak dira nagusi, baina garai hartan, ardi gutxi izango zen. Txerriak, behiak...”

Ikatza

XVIII. mende erdialdean onartu zen, ikatza egiteko basoaren ustiapena. “Basoa aurretik ondo mantentzen zen, arraunak egiteko, pago luzeak behar zituzten; eskupe-tentzat, upelak egiteko... oso egur gutxi gastatzen zen horretan. Itsas marina esku-bide batzuk bazituen, baina ezin zuten edozein egurra moztu, inspektorea joan baino lehanago. Egur hori ona zela ziurtatuko zuten. 1760 urte inguruan salto bat ematen da, ikatza ustiatzea onartu zen. Behoko baso guztia, burdinolek jan zuten, eta poliki-poliki goraka joaten dira. Mankomunitateak erabakitzen du, pago egurra ikatza bihurtzea. Momentu horretan, lehenengo kaltzada egin zuten gurdiak ibiltzeko. Bideak egongo ziren baina gurdiak ibiltzeko Larraitzetik igotzen den galtzada egin zen, Ataungoa ere bai”.

Meategiak

Basoaren desagertzean eragina izan zuen hirugarren elementua, meategiak izan ziren. “Meategiek egur asko jaten dute, izugarri, bai ikatza egiteko, bai mina zuloetarako. Dena den, XIX. mende bukaeran ikatza eta burdinolak bukatu ziren eta basoak ez ziren errentagarriak, berreskuratu egin da nolabait basoa. Basoa nahiko mugatuta dago urruneko edo leku zatarrenetan”.

ko informazioa dago”, zehaztu du Morazak.

Dena den, momenturik okerrean XVIII. mendea izan zen. 1717-1797 urte bitartean, Amezketa Orreagatik zituen eskubideak erosi zituenen. “1717an Amezketa Orreagarenak ziren 14 saroiak erosi zituen, Ordizia batuketa horren kontra azaldu zen. Urtero iskanbilak daude, abereen harrapaketak. Benetako batailak, tiro hotsak ere entzuten ziren. Lapurretak egin, eskribaua joan testigantza hartzera joan, zaldia lapurtu, eskribaua erdi biluzik utzi... 80 bat urte txarrak izan ziren, istilutsuak. Baina Mankomunitatea ez zen zatitu, kasualitatez”, azpimarratu du Morazak.

Mehatxu ugari
izan ditu Enirio-
Aralar
Mankomunitateak,
batez ere XIX.
mendearen
aurretik.

Mankomunitatea desegin ala ez desegin, mehatxu asko izan omen zen. Alfredo Morazaren esanetan, “mehatxu asko izan dituzte. XIX. mendearen aurretik, 14 zatitan zatitu, eta bakoitzak bere zatia erabiliko zuela pentsatzen aritu ziren. Baina ez zen horrela gertatu. Gatazka nagusia 1821ean izan zen: zuhaiztiak banatzea. Pagabetik behera, herri bakoitzak bere pusketa dauka. Zer gertatzen da? XIX. mendean Independentzia gerra, Karlistadak... daude. Gerra eta



Alfredo Moraza Aranzadiko historialaria.

gerra. Udalak, diruz zorretan daude eta bere mendi guztia saldu beharrean. Jabetza ezin du saldu, baina bai basoaren ustiapena. Zer gertatzen da? Lehenago ikutua baldin bazegoen basoa, momentu horretatik aurrera, gehiago ikutzen da. Egia esanda, orain dagoen basoa, berria da”.

Zerk edo zergatik lortu zuen batasuna? Galdetu diogu Morazari. “Ez dakit zergatik. Norbaitek beharbada kontzientzia edukiko zuen, arazo gehiago sortuko zirela ikusiko zuten... Behealdeko mendia zatikatu zuten. Intsutiko mankomunitatea adibidez, zatitu zuten. Zaldibia-Ataun inguruko mapa hartuz gero, petatxo asko daudela ikusiko dugu. Pagadia 8 pusketetan banatzea erabaki zuten eta bakoitzak bere eremua ustiatzeari”.

Lehendakaritza eta egoitza, Ordizian

Mankomunitatearen lehendakaria, Ordiziako alkatea izaten da. Alfredo Morazak ez du datu horren zergatirik

ezagutzen. “Egia esanda ez dakit zergatik. Bi mankomunitate ziren: Amezketako batuketa eta Ordiziako batuketa. Bakoitzak bere junta zeukan, beraien aktak altxatzen zituzten eta gero biak Suegin elkartzen ziren, Zaldibiako baserri batean. Intxaurren baten azpian. Erabaki guztiak amankomunean hartzen ziren. XIX. mende inguruan, egoitza ofiziala Ordiziara eraman zuten”.

Apiriletik azarora mundu txiki bat

Mendiak ustiatzeko mankomunitatea da Enirio-Aralar Mankomunitatea, bere araudiarekin. Esate baterako, saroiak ziren mugetariko bat. “Saroiak askotan mugatuta egoten dira uztarri batekin, erdian markatuta. Egunez, abereek, posible dute libre ibiltzea baina gauean, toki zehatz batera joan beharko dira. Alegia, artzainak txabola eta artegia daukan tokira. Gauz saroiara joan beharko dira eta horiek mugatuta daude. Ustiapena pribatua da, jabetza daukala-

ko, baina jabetza berez amankomuna da, betidanik horrela izan da”, argitu du Morazak.

Ehun bat saroi inguru daude dokumentatuta, “eta saroi bakoitzean posible zen bi edo hiru txabola egotea, edo gehiago. Muga zen, saroi barruan egotea txabola. XV. mende hasierakoak dira lehenengo datuak. Lehenengo zerrendak orduan hasten dira. Saroi-ekin izenak asko aldatu dira, ez dakit zergatik”.

Apiriletik azarora bitartean, mundu txiki bat zegoen, herri handi bat Aralarren. 100 saroi, seguraski 100 artzain, gehi inguruko jendea. Inguru hori ondo ustiatura egongo zen eta beraien arteko mugak ondo markatuta egongo ziren. Ur gehiago ere egongo zen. Tabernak ere egon ziren. Herri bat bezala zen. XIX. mendearen bukaeran, tabernak jarri zituzten: bat Igaratza inguruan, eta beste Enirio aldean”, gainera-

tu du. Mikelete postua jarri zuten Igaratzen.

600 urte hauetan zenbat artzain egon diren jakitea ezinezkoa da. “Baina kalkulatu: 100 bat saroi baldin bazeuden, saroi bakoitzean bi edo hiru txabola, eta txabola bakoitzean 2 edo 3 artzain... Biderketaren emaitza handia da. Ataun, Zaldibia, Amezketakoak ziren artzain gehienak”.

Artzainez gain dena den, Amezketako meatzetako langileak ere bizi ziren Aralarren. “Meatzaren ingurukoek arazo asko sortzen zituzten, ekologikoki txiki-zioa handia egiteaz gain. Herri txiki bat zen hura ere. Momentu politenak, XVIII. mende hasieran, 300 pertsona inguru bizi ziren. Herri txiki bat zen. Txokeak sortzen zituzten. Kapatazak eta ez ziren bertakoak. Bai-gorri ingurukoak edo alemaniarrek izaten ziren, katolikoak jakina, ez kutsatzeko. Oso jende zatarrak ekartzen zuten esaten dute”.

Ardiak eta txerriak

Denborarekin, ardiak irabazi du lekua Aralarren. “Gazta nagusitu da komertzialki. Lehen ez dakigu zertarako erabiltzen zuten ardia. Haragitarako seguru. Esnetarako ez dut uste eta erabiliko bazuten mendira igo baino lehen erabiliko zuten gazta egiteko. Ordura arte ez zegoen gaztaren hamarrekorik, baina gazta gehiago zabaldu zenean, Eliza sartu zen eta bere zerga propioa jarri zuen. 10 gaztatik 1, beraientzako izango zen. Hamarreko berezia asmatu zuten gaztarentzat. Horrek erakusten du, industria bezala zabaltzen dela gazta”.

Txerriak

Ardiez gain, txerriak ere Aralarren parte izan dira. “Txerri asko ibiltzen ziren Aralarren. Urrutitik etortzen ziren txerriak hartuta, baso egokirik ez zutelako. “Azkoititik, Oñatitik, Nafarroatik, Bizkaitik... Txerri taldeak ekartzen zituzten Bedaio ingurura, Intsutira, Aralarra... Urrutiagotik ere etortzen ziren: Soriatik adibidez. Mila txerriekin etortzen ziren askotan. San Andresetik Gabonak arte egoten ziren pago ezkurra jaten. Ardiak edo behiak jaitsita, mendia libre dago. Txerri talde handiak etortzen ziren. Gidatzeko animali txar bat baldin badago, hori txerria da. Urtariletik aurrera, Arabako lautada aldean ibiltzen ziren, han gehiago irauten baitzuen pago ezkurrak”, zehaztu du Morazak.

Txabolak aztertuz

10-11 urte dira Joxean Mujika beasaindarra eta Alfredo Moraza historialariak eta arkeologoak Aralarren ari direla lanean. “Azterketa sakona egiten ari gara, artzaintza, giza aztarnak arakatzen, noiz okupatu den, nola, zein garaietan... Aztarna guztien inventario bat egiten ari gara. Oraingo txabolak eta zaharrak. Egia esanda, gainezka eginda gaude. Asko falta zaigu oraindik. Txabolak, eskortak, mina zuloak... izugarria da. Urbasarekin edo Aizkorriarekin konparatuz gero, izugarria da. Momentu batean nola ibili ziren hor goian”.

Aztarna ugari aurkitzen ari dira historialariak. “Orain ikusten ditugun txabolak, ardientzat pentsatutako txabolak dira. Txabola handi bat, bi zatitan: bat lo egiteko, gazta egiteko toki txiki bat, sarrera moduko bat... Ingu-ruan, eskortak, arkumeak gordetzeko. Otsoaren kontuarekin, ardiek, behiek baino babes gehiago behar zuten. Behiek beraien burua defenditzen dute otsoen kontra”. Garai bateko txabolak nolakoak ote ziren galdetu diogu Alfredo Morazari. “Oinarria harrizkoa izango zuten, egurra ez usteltzeko, baina hortik gora, dena egurra. Momentu honetan gaur egun ezinezkoa da hori pentsatzea, egurrik ez dagoelako. Baina momentu batean bazegoen, eta urtero, berritu egin behar-ko zuten txabola, negu osoan egon ondoren, txikituta geldituko baitziren. Arkeologia aldetik ikusita, ikusten ari gara, asko aldatu dela txabolen egitura. Guk dauzkagun ohiturak, toki goxoa, indarra... Txabolak askoz ere txikiagoak izango ziren, lastoz egindakoak. Teila berez debekatuta zegoen jartzea. Teila jabetzarekin lotuta dago. Saroiaren muga uztarriak zehazten du. Uztarrian, ikatza eta teila puska bat sartzen da. Beraien bizilekua dela adierazten zuen, beraien jabetza zela”, gaineratu du.



Arkuak eta tumularrak

Garai ezberdinetako txabolen aztarnak ari dira aurkitzen. “Tumularra deitzen diogun txabola mota aurkitu dugu. Aurrehistoriako tumuluak bezalakoak dira, bola handi batzuk eta goian, txabola egitura bat egongo zen. Batzuk 2 metroko altuera daukate eta gainean, bizitokia jarrita. Erromatar garaiko txabola bat industu dugu aurrean. Harriz egindako tontorrak, harri txiki-txikiz egindakoak, harriak zartatzen norbait ibiliko zen. Harria, lurra eta ikatz askorekin egindako nahasketa.”, zehaztu du Morazak.

Aralarko zenbait gunetan, arku itxurako txabolak ere ikus daizteke. “Guk pentsatzen dugu, duela 200-150 urte ingurukoak direla. Ez dakigu zehatz-mehatz, moda hori nondik etorri zen. Mahastietan-eta trasteak eta gordetzeko erabiltzen dute. Aralarren pentsatzen dugu, arkumearekin lotuta egongo direla, gehienbat otsoaren kontrako babes neurri bezala. Arkuek, sarrera oso txikia izaten dute, 40 zentimetro ingurukoa. Famatuena Nafarroakoak badira ere, Gipuzkoan ere badaude, Zabalegin, Irutxetan...”.

Txabolen eremuak ere ari dira aztertzen. “Eremu horiek non dauden

kokatuta ikusten da. Txabolek edo saroiak, zokoguneak bilatzen dituzte, babesa. Baina txabola zaharrak, erromatarrek edo brontze garaikoak edo erdi arokoak, leku altuetan daude, lepo txikietan... basoak babestuko zuen ingurua. Azken batean, zokoak leku zikinak dira”.

Otsoa noiz arte?

Otsoaren gaia behin baino gehiagotan atera da elkarriketa honetan. Baina noiz arte egon zen otsoa Aralarren? “XIX. mendera arte, 1887 urte inguruan akabatu zuten azkeneko otsoa”, erantzun du Morazak.

Otsoaren inguruan istorio ugari daude. Bat kontatu digu Morazak. “Sari berezia zegoen otsoa akabatzen zuenarentzat. Otsoa akabatzen zuenak eskubidea zeukan herriz herri joateko, otsoa erakusten, eta jendeak esker onez dirua ematen zion”.

Otsoaz gain, hartza ere aipatzen da hainbat eta hainbat dokumentutan. “Baina XVII. mendetik aurrera ez da batere entzuten. Horrek zer esan nahi du? Momentu horretan basoa askoz ere gehiago zegoen. Orain pelikuletan ikusten ditugun animalia guztiak hor ibiliko ziren”, gaineratu du.



kutxa

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (astean zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko
meua



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEB



Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera

Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gabean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA

Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzeraz!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

Aralar mendiko kontu bitxiak



Zaldibiak badu, dantza eta herriko seme argiez gain, iragan isil bezain monotonia, bere muino eta base-rietako isiltasunaren parekoa. Kasik ez dago ezer berezirik, bizimodua bera ez bada, txikikeria deigarriez beteriko bizimodu berezia. Dena dela, bere historia patxadatsuaren harian, bada zenbait gauza, zenbait gertaera, denbora iheskorren atzaparretatik erreku-peraturik, gure garaietaraino iritsi dena, aro bat islatu eta giro jakin bat definitu duena.

Oraingoan Aralartik datozkigu berriak, antzinateko mendi patriarkal horretatik; gaur, eliz dorreko kanpai-hotsek Santa Fe zaindarien jaiak iragartzen dituzten honetan, betilun eta txiro ageri zaigu. Geroxeago, bildotsak bidaliko dizkigu, elkarren kontra estuturik eta artzainen txistu-hots eta mastinen artean, Bizkai aldera abiatzeko. Horixe da, udazkenean, artzain-herri honen ohiko erretratua.

Atsegin dut, zinez, momentu batez begiak itxi eta orotzaipenetan galtzea. 1500. urtean nago, gure herri honen edozein ingurut. Toki aski zakar eta barkartia da, alde guztietatik laharrez eta basoz josia. Nire

begiak gari sailak, arta sorokak eta abar ikusten ohituta daudelarik, oraindik ezin naiz jabetu garai hartako landaredi ugariaren sendotasunaz. Gaurkoarekin alderatuta, oso bestelakoa zen Gipuzkoako paisajea; esan beharrik ere ez dago animalia-mota askoren bizitokia zela; baziren hartzak, otsoak, basurdeak, basakatuak, azeriak... Eta hainbestexek dira, XVI. mendean, Aralar mendiko artaldeei eraso egiten dieten sarraskigileak, Enirio-Aralar elkarteko herriak bilera egin beharrean aurkitzen dira; 1578ko maiatzaren 20an egin zen bilera hori eta ordenantza hauxe idatzi zuten: hartza akabatzeagatik, 6 dukat (16,50 pezeta) saritzat; otso-arengatik, 2 dukat; eta beste piztia mota batzuk (obillo) harrapatzeagatik, 2 erreale.

Ordiziako diru-kontuetan ageri denez, 1579tik 1608ra bitartean, ontzako urrea ordaindu zitzaizen ehiztariei, 19 hartz eta 7 otso akabatzeagatik. Gerturago etorrita, 1658an, Gaborian hartz bat harrapatu zuten, eta Aralarren beste bat, 1735ean; azkeneko horrek 87 kg pixatu zituen larrua kenduta, eta Ordiziako Val-

medianoko Markesaren palazioko atarian egon zen jendaurrean erakusgai. Iz-tuetak dioenez, idiazabalda-rrek 39 kiloko tigrea harrapatu zuten zepoan, 1776an.

Baina sarraskigile guztien artean, otsoa da ugariena eta Gipuzkoako lurraldean gehien iraun duena; horren seinale gisa, hor daude bere izena daramaten hainbat toki. Zaldibian ere badira erro hori daramaten baserri-izenak.

Tresna asko erabili zen, Aralar ingurutik otsoa desagertu zedin: zepoa, tranpak, otsotarako perdigoia (berezia) eta, batez ere, benenoa. Horretarako, artzainek pizti harrapatzaileak eramaten zituzten, diru truk, piztiaren arrastoak ikusi orduko. Adituok biderik bide ibiltzen ziren, abere-tripak lorrean zituztela, eta han-hemenka sebo-puskak ipintzen zituzten, benenatutako okelarekin nahasi. Otsoak arrastoiari zuzen jarraitzen dio, pozionarekin topo egin arte.

1895ko elurtean, harripaketa modu hori dela medio, sesio izugarria sortu zen zaldibitarren eta ataundarren artean. Zaldibikoek benenatutako asto-burua ipini zuten Enirio-Aralar elkarteko mendietan, eta

ataundarrek ahuntz-burua, euren herri-terrenoan; hauek ere pozinduta, noski. Hurrengo egunean joan ziren batzuk eta besteak nor bere karnata (cebo) ikustera, eta gurek hiru animalia aurkitu zituzten akabatuta: azari handi bat, izugarritzko arranoa (hegotik hegora metro eta erdi neurtzen zuen) eta 49 kiloko otso bikaina. Hirurak ere jatura egin zuten tokitik gertu zeuden akabatuta.

Era berean, ataundarrek, ahuntz-buruari begira jarri zirenean, otso-arrastoak ikusi zituzten elurretan; haien ustez, otsoa, ataundarren janaritik probatu ondoren, Zaldibia aldera joan zen. Zaldibitarrek otsoa harrapatu zutela jakin zutenean, ataundarrek pentsatu zuten euren ipinitako ahuntz-burutik janda benenatu zela, eta erreklamatu egin zieten zaldibitarrei. Ataungo alkatearengana joan ziren biak, bai ataundarrak eta bai zaldibitarrek, ziurtagiri bila, hori beharrezkoa baitzuten 375 peze-ta kobratzeko, hau da, artzainen elkarrekin ordain-sarritzat izendatua zeukana jasotzeko. Alkatea zeharo txundituta geratu zen, batzuen eta besteen arrazoiak



entzun da; izan ere, nork jakin zer janda, asto-burua ala ahuntzarena, akabatu zen otsoa?

Hala ere, Ataungo Alkateak ez zuen Salomonen biderik hartu. Dakigunez, Salomonek, epaiketa sonatu hartan, haurra erdibitu egin zuen, berea zela zioen emakume bakoitzari zati bat emateko. Ataungo Alkateak ideia askoz argiagoa izan zuen: al baitariari deitu eta piztiaren sabela irekiarazi zion. Halaxe egin zuen, eta astoaren belarria aurkitu zion; belarria haragi zaila izaki, ez zuen izan desegiteko astirik. Egindako proba guztiz erabakigarria gertatu zen, eta zaldibitarrek eraman zuten otsoa, harrapatze-gatik emandako diruak.

Baina Aralar ez da izan piztien larrea bakarrik, gure arbasoek piztiei sarritan aurre egin behar izan dieten arren; jentilak ere ospetsuak dira Aralarren. Eta ez diote gutxi eragin gure jakin mi-

nari, meategi eta urreari buruzko esakunei esker. Gipuzkoa osoan banaturik zegoen uste hori. Baina ez ustea bakarrik; egia ere bai, garairen batean. Micer Andres Navajero ibiltari ospetsuak, Veneziako Enbaxadore gisa, 1524an, Zegama eta Seguratik igaro zelarik, esan zuen Gipuzkoaren goialdeko eskualde horretan burdina eta zumake (beste metal bat) asko ateratzen zutela.

1735an hasi ziren kobrea ateratzen Aralarreko Arritzagako meategian. 65 urte iraun zuen lantegi horrek. Bi ola muntatu eta 300 gizon ipini zituzten lanean, kobrea hantxe bertan lantzeko. Ez olak bakarrik, etxolak ere ugari eraiki ziren, langile haien guztien babeserako. Era berean, kapila ere bazen, bere apaiz eta guzti. Begi-bistakoa da, Gipuzkoan hainbeste ola baldin bazegoen, burdina eta kobrea asko zegoelako

zela. Horrekin batera, baita merkatu famatu bat ere hemen Zaldibian, metal horiez egindako tresnak saltzeko. Nola ez, inguruko herrietatik eta Nafarroatik jende asko etortzen zen Zaldibiko azokara. 1787an, artean, baziren meategiak Aralarren. Diotenez, Zaldibiko erreto-re Jose Ignazio Etxabek urrezko piriten distira ikusi zuen Aitzarteko karaitzetan. Eta Aralarreko meategien elkartek 16 gizon, beren enkargatuarekin, utzi zizkion. Arrakasta handia izan zuten; laster, gainera, nahiz eta mugatua izan. Hiru ontza eta bi otxabo pixatu zituzten urrepiririk ateratzea lortu zuten. Baina hori lortzea asko kostatu zitzaizen: 40 ontza urre, hau da, atera zutena baino hamaika bider gehiago.

Berriro Zaldibira itzuliko gara, Aralarren magalean aurkitzen den txoko polit honetara. Askorentzat, Iz-tuetaren, Lardizabalen, Jau-

reguiren, eta Aita Lizarralderen sehaska. Beste askok hemengo mondeju bixiak, amuarrafin finak eta gazta gozoak izango dituzte gogoan. Hori guztia horrela, zaindariaren jaien atarian gaude, eta, urtetik urte, gero eta gogatsuago ospatzen ditugu, ekintza erlijioso eta herrikoetan denok parte harturik, antzinatek datozen fede eta ohitura onen seinale. Inoiz ez daitezela desagertu hainbat mendez gorde dituen gure lur honetatik. Azkenik, hitzaren leiho honetatik agur bero bat herri-tar guztiei, ondo pasa Santafeak. Bihotz barrendik sortutako alaitasuna izan dezagula lagun. Hauxe da lehenengo etxaferrua! Gora Zaldibia!

1950. urtean
J. Garmendiak idatzia

Itzulpena: Rufino Iraola.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

San Nazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak



Eñaut Tolosa beasaindarra, zinemaren munduan ate joka

Zinema munduan lehenengo urratsak egiten ari da. 'Hautsitako leihoak' dokumentala egin du, Hammudi Al-Rahmoun ikaskidearekin eta lagunarekin batera: "kale borrokaren gaiarekin lotutako 25 minutuko testigan-

tza bilduma". Eñaut Tolosa beasaindarra Bartzelonan bizi da duela 10 urtetik eta batez ere gidoilaritzan lan egin nahi du. Dena den, bizimodua aurrera ateratzeko, zinemako dekoratuak sortzen eta publizitatean ere lan egiten du.

 **mazda**

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
 Faxe: 943 887 952
 N-1 errep. 419 Kma
 BEASAIN



Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
 barne diseinua
 dekorazioa

Garai berrietarako
 ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
 Tel.: 943 16 40 40
 BEASAIN

Gabonetan jende ugari itzultzen da etxera eta horietariko bat Eñaut Tolosa beasaindarra da. 31 urte ditu eta duela 10 urtetik, Bartzelonan bizi da. “Arte Ederak Ikasketak egin nituen hemen baina ez zitzaidan gehiegi gustatzen eta Bartzelonan dagoen Kataluniako Zinema eskolaren berri eduki nuen eta hara joan nintzen”, argitu du Tolosak.

Zinema munduan, arlo ezberdinetan, urratsak ematen ari da. “Zinema munduan sartuta bai, baina gure proiektuak egiteak oso urruti gaude. Normalean, gure poltsikotik ordainduak. Proiektu txikiak egiten dituzte, horietariko bat, ‘Hautsitako leihoa’ dokumentala da”. Hammudi Al-Rahmoun ikaskide eta lagunarekin batera egin du.

Hain zuzen ere, ‘Hautsitako Leihoa’ dokumentalagatik izan dugu Eñaut Tolosaren berri. “Kale borrokaren argumentuarekin atxilotutako hiru gazteren eta bi amen esperientziak eta testigantzak biltzen ditu. Madrilo Auzitegi Probintzialeko Joaquín Navarro Estebanen adierazpenak ere biltzen dira”.

Gai horri heltzeko ideia nondik sortu zitzaion galde-tu diogu beasaindarrari. “Bartzelonara joan nintze-nean, nire lagun bat atxilotu zuten. Biok zein bide ezberdin edo zein zorte ezberdin ezberdin eduki genuen pentsatzen nuen. Lehenengo urteetan, pentsatzen nuen dokumental bat egiteko gai garrantzitsua zela, eta egin gabe zegoela. Hirugarren mailan geundela, ikasgai bat gainditu gabe geneukan, ‘Dokumentalaren teoria eta praktika’. Hammuidiri proposatu nion gai honi buruz dokumentala egitea eta hona etorri ginen. Korrika eta presaka zerbait egin genuen, eta gainditu genuen. Gero kajoian gelditu zen. Gure eskolak ere ez zeukan interes



Hammudi Al-Rabomoun izan du lagun Eñaut Tolosak, ‘Hautsitako Leihoa’ dokumentalean. “Aita Siriarrak du eta ama, katalana. Arabia Saudin eta Bartzelonan bizi da. Eskolan ezagutu ginen. Berari gaia interesatzen zitzaion eta beste proiektu batzuk ere egin ditugu”. Arg.: Andreu Adam,

handiegirik bukatzeko, interesa gurea bakarrik zen. Hona etortzen ginenean material biltzen genuen, kajoian sartu eta hor gelditzen zen, landu gabe. Materiala bildu eta bildu aritzen ginen, baina ez genuen bukatzeko heldutasunik ikusten. Baina azkenean, bukaera eman genuen, % 90ean, lehenengo astean grabatutakoarekin egin dugu. 5 urte pasatu genituen. Beraz, egindako bidaia guztiak alperrik izan dira”, azpimarratu du irriparez beasaindarrak.

Baina azkenean serio heldu eta duela urtebete inguru, ‘Hautsitako leihoa’ dokumentala aurkeztu zuten. 5 urteko lana beraz, 25 minutuan islatu dute Tolosak eta Al-Rahmounek.

Denbora tarte horretan dena den, gaiak ez zuen interesik galdu Tolosak adierazi digunez. “Elkarrizketatutako bi mutil Iruñeakoak dira eta estreinatu genuenean, beraien auzi berean zeuden adin nagusikoak, kartzelan sartu behar zituz-

ten hurrengo egunetan”.

Beste interes bat ere piztu zuen dokumentalak, elkarrizketatutako ametakoa bat, Iruñean 2004. urtean hil zuten Angel Berruetaren emaztea baita. TV3rako dokumental berezia prestatu zuten.

Irudi zaharrak ere azaltzen dira dokumentalean. “ETBetik lortu ditugu, eskolak ordainduta. Ordiziako irudiren bat edo beste badago. ETB publikoa da baina gero irudiak saldu egiten ditu. Zinemagile euskaldunoi erraztasunak eman beharko lizkiguke baina...”, salatu du beasaindarrak.

Estreinaldia Bartzelonan

Estreinaldi ofiziala, Bartzelonan egin zuten, nahiz eta aurretik, Beasaingo Gaztetxean, lagunartean, aurkeztepen extraofiziala egin zuten. “Bartzelonan, zinema munduko jendearen aurrean estreinatu genuen... Guretzat aurkezpenik politena izan da, jende anitza zegoen eta jende gehienari interesa sortu zion. Bartzelona-

ko zinema areto bat bete egin genuen”.

Batez ere Gaztetxe inguruetan izan du orain arteko zabalkundea. “Bartzelonan etxe okupatuetan ere jarri da”. Baina zabalkunde handiago ere eman nahi diote. “ETBera eraman genuen eta ezetz esan ziguten, ondo zegoela eta polita zela, baina ezetz. Hauteskunderen batzuk ziren. Donostiako Giza Eskubideei buruzko dokumentaletan aurkeztu genuen eta ez gintuzten hartu”, azpimarratu du. Horri bai, badu amets bat beasaindarrak: “Gustatuko litzaidake Beasaingo zinean aurkeztea”, aitortu du beasaindarrak.

DVDa Durangoko azokan salgai egon da eta Beasaingo Arrano tabernan ere eros daiteke. Interneten, Youtuben ikus daiteke. Dagoeneko 16.000 sarrera izan ditu. “Ez dakit nork sartu duen, guk ez, baina jende askok ikusi du, asko da hori. Denetik deitu digute”, azpimarratu du Eñaut Tolosak.



Aktoreentzat eta zuzendarientzat ikustezina naizela pentsatzen dut askotan”



Gidoilariaren ametsa

Gidoiak idaztea. Horixe da Eñaut Tolosak duen ametsa. “Nire helburua edo ametsa da, gidoilari izatea. Baina oraingoz, oso-oso zaila ikusten dut. Bartzelonan oso zaila da, bizitza ere oso garestia da eta. Gidoilari lana egunero-egunero lana da. Inspirazioa lanean etortzen da eta disziplina zerorrek jarri behar diozu zure buruari”, azpimarratu du.

Zinema ingelesa gustatzen zaio. ‘This is England’, ‘Transpoting...’. “Komedia eta drama oso ondo uztartzen dituzte”.

Goierri eta Goierri kokatutako istorioak idaztea gustatuko litzaioke. “Goierri badauka ingeles ikutu bat: industrial... Goierri kokaleku oso ona da. Ondo egongo zen hemengo istorioak kontatzea”, gaineratu du Eñaut Tolosak.

Film laburren arloan aritu dira orain arte Eñaut Tolosa eta Hammuidi Al-Rahomoun, baina orain, lan luzeagoekin egiten hasteko asmoa daukate. “Laburmetraiek ez dauka bizi komertzialik. Dirua galdu egiten duzu beti. Dirua irabazteko luzemetraiairekin bat egin behar izaten da edo telebistarako proiekturen bat. Azkeneko urtean, luzemetraiairekin bat egin nahian gabil-tza. Primeran bezala jokatzea da eta oso zaila da. Denbora behar da eta dirua ere bai. Oso burugogorra naiz, eta hori alde daukat”, aitortu du Tolosak.

Eñaut-Hammuid lankidearekin ondo ditu banatuta lanak. “Errodajea Hammuidik eramaten du pisua eta nik gidoia. Gehiago gustatzen zait gidoiak idaztea. Errodajea oso estresa-garria da. Presio handia dago, ez dakit zenbat plano egin behar diren... momentu batean ideien bat esan eta kitto. Gidoia idaztea oso merkea da baina errodatzea oso garestia. Nik presio ho-

ri ez daramakit oso ondo”, azpimarratu du.

Dena den, oraingoz behintzat gidoietatik bizit-zerik lortu ez duenez, beste lan batzuk ere egin behar izaten ditu Eñaut Tolosak.

Filmetako dekoratuak egiten ditu. Woody Allenek Bartzelonan grabatu zuen ‘Vicky Cristina Barcelona’ filmako dekoratuetan lan egin zuen adibidez, Javier Bardem, Penelope Cruz eta Scarlett Johanssonen ondoan. Dena den, ez du inolako harremanik izaten aktore eta zuzendariekin. “Aktoreak hor ikusten ditut, baina ikusi bakarrik. Zinema oso-oso hierarkizatuta dago. Zure nagusiarekin hitz egin dezakezu baina beste inorekin ez. Eta horrelako produkzioetan gehiago. Jende askorekin ezin dut traturik eduki. Askotan

pentsatzen dut beraientzat ikustezina naizela”, azpimarratu du beasaindarrak.

Dekoratzailer batek zein lan egiten duen galdetu diogu. “Adibidez, etxe bate-ra sartu, dena hustu, altzariak jarri, margotu... eta gero berriz ere zegoen bezala utzi behar duzu”.

Publizitatearen munduan ere aritzen da. “Publizitatean presio handia dago. Hobeto ordaintzen dute baina esklabuak bezala tratatzen zaituzte. 16-18 ordu lanean, erritmo gogorra... Eskandaluzkoa da zenbat diru gastatzen den iragarki batean. Oso-oso lizuna da. Diru asko botatzen da publizitatean”, salatu du.

Publizitatea ere oso hierarkizatuta dagoela dio: “publizitatean, argazkilariak, aristokrazia bezala dira; tar-tean, artea eta dekorazioa



eta behe-behean, produkzioa dago. Nik ahal dudan gutxiena egiten dut, beste aukerarik ez daukadanean egiten dut publizitatean”, dio beasaindarrak.

Bat aukeratzekotan, “zinema da onena. Soldata onak, ondo tratatzen zaituzte...”. Dena den, Bartzelonan, gehienbat, publizitatea errodutzen da eta Madrilen gehiago zinema. “Euskaldun asko ibiltzen da dekoratzaile munduan Bartzelonan. Eta produkzioan ere bai”.

Bartzelonatik alde egiteko asmorik ba ote duen galdetu diogu, zinema arloan lan gehiago dagoen lekuren batera. “Mexiko alde-ra joateko ideia buruan da-bilkil. Europako heziketarekin aukera handia daukazu. Hangoentzako alukeria da baina gorenean sartzen zara, izen batekin zoaz. Berrez, Mexikoko jende asko joaten da Bartzelonara Masterrak eta Graduondokoak egitera, bere herrira beste maila batekin itzultzeko”, aitortu du Eñaut Tolosak.




Angel G. Katarain

*"Gaur egun musika
jaiotzen den lekuan
bertan grabatu dezakezu,
entsegu lokalean,
kalean, ohe ondoan..."*

Nafarroan, Azkaraten, du grabaketa estudioa musika teknikari eta produktore lanetan urte asko daraman Angel G. Katarain ordiziararak. Teknologia berrien garaian ordenagailua eta grabatzeko tresneria hartu eta Fermin Muguruzarekin munduan zehar ibili da diskoa grabatzen. Elkarrietzeta ere, garai hauetako moduan, e-mailez egin dugu.

**"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobeak"**



**GOKINDEGI
GARIONTA**

K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

**IÑAKI ARIN
aseguruak**



943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

Zertan datza disko ekoizlearen lana?

Diskoak ekoiztea, norbaiten abestiak soinu ekipoetan erreproduzitu ahal izateko formatu batera moldatzea da.

Hasieran ekoizle hitza dirua jartzen zuen exekutiboarekin lotzen zen. Ondoren prozesuaren musika eta teknika atala lantzeko exekutiboak kontratatzen zuen pertsonari esaten zitzaion ekoizle. Hauek ziren eta dira oraindik ere diskoaren kalitatearen arduradunak. Talde edo artista aukeratu eta beraiekin harremana izan, gaiak aukeratu, moldatu, zein instrumentu grabatu behar den erabaki, nortzuk joko dituzten, estudioa aukeratu, teknikaria aukeratu... lan horiek denak egiten ditu ekoizleak. Hori horrela da, multinazional

handiek disko baten arrakastaren edo porrotaren ardurak pertsona honen gain jartzeraino.

Aurretik zein harreman zenuen musikarekin?

Edonork izan dezakeen berdina. Musika sortzeko edo entzuteko da eta horixe egiten jarraitzen dut ahal

ka teoriaren ezagutza handia izan edo musika-tresnaren bat menperatu behar duela uste al duzu?

Ez dut musika-tresnarik ondo jotzen, baina, tarteka saiaturaz gozatzen dut. Ekoizleak ez du zergatik musika ezagutza handiegirik izan beharrik, baina sena eta

loa norantza horretan zuzentzeko gai izan behar da eta bidean aurkituko dituen kausalitateak bideratzeko irekia egon behar da.

Ekoizle bakoitzak bere modua du eta hori produktuan nabari da, ala ez? Zein da zure estiloa?

Ekoizle bakoitzak bere estiloa du, nahi izan ez arren, pertsona batek bere aurpegia, munduan bakarra, duen bezalaxe. Estilo hori denbora pasa eta hainbat lan egin ondoren aurkitzen da. Egun batean norbait etorri eta izen bat ematen dio, eta orduan zuk esaten duzu: ah! ba ondo!

Ni oso ados nago beste harekin: zure bizitzaren lehen zatia ikasten eman ezazu, ikasi ahal duzun guztia, lehertu arte. Ondoren utzi ezazu dena alde batera eta egin ezazu nahi duzuna.

Ekoizleak musika bat entzun eta azken emaitza izan litekeena bere buruan irudikatzeko gai izan behar du.

dudanean. Baina egia da honetan lan eginda aisialdian zinera joateko gogo gehiago izaten dela.

Instrumenturik jotzen al duzu? Ekoizle onak musi-

zentzumen berezia behar du musika tratatzerakoan. Zerbait entzun eta azken emaitza izan litekeena bere buruan irudikatzeko gai izan behar da. Ondoren le-

Tresna zahar haiek

1978 inguruan izango zen. Oinarrizko hezkuntza amaitu eta BBB-ko lehenengo mailan ikasketak utzita Donostia-ra joan nintzen telebista konponketa ikastera (orduan audioarekin zer ikusia zuen zerbait ikasteko aukera bakarra zen). Han ikasi nuen oinarrizko elektronika eta irrati-difusioari aplikatutako elektronika.

Horrela hasi nintzen, Ordiziako etxean prestatu nuen gela batean, amplifikadoreak eta soinu tresnak konpondu eta diseinatzen. Beste lan batzuen artean musika ekipoak egiten nituen, nerontzat eta laguntzat, honela ezagutu nuen Kaki Arkarazo, gerora hainbat proiektu konpartituko nuen musikari eta soinu teknikari lazkaotarra. Kaki niregana etorri zen, Ordizian 'trasteak' egin eta konpontzen zituen 'ero' bat bazela entzun zuelako. Gitarra ekartzen zizkidan hotsak kentzeko, eta neronek egiten nituen amplifikadore eta pedalak eskatzen zizkidan.



Behin 8 kanaleko Peavy nahasketa mahaia ekarri zidan konpontzeko. Botoi beltz mordo harrek nire arreta piztu zuen. Konpondu nuen, baita bere jabeak ezagutu ere: Lazkaoko Jokin eta Josu abeslariak. Handik gutxira beraiekin lanean hasteko aukera eskaini zidaten emanaldietan ekipoa muntatu eta maneiatuz. Hori izan zen soinua ikasteko nire aukera.

Ondoren iritsi zen Fernando Unsain, hau ere Lazkaoko, Madrilen urte batzuk pasa ondoren diskoetxe bat sortzeko gogoarekin zetorrena. Unsainek teknikaria behar zuen eta ni ikasi ahal izateko edozertarako prest nengoen. Honela Lazkaoko pisu batean nire lehen soinu estudioa

muntatu genuen. Handik gutxira, Fernando eta biok Amaran ekipatu genuen IZ estudioetara eraman genuen tresneria guztia. Bertatik pasa ziren herri honetako artisten erdiak.

Nik ez dut nire estiloa aurkitu, ez bainaiz ohiko moduko ekoizlea, oso puntualki egiten dut: nire musika egiten dudanean edo burugaberen batek berea birrintzen uzten didanean.

Herri honetan ez dut ekoizlerik ezagutzen, laguntzaileak baizik. Talde bat diskoa grabatzera etortzen da, soinu jakin bat bilatzen du eta zuk laguntza ematen diozu, aholkatu, baina, azkenean beraiek erabakitzen dute zer den balekoa eta zer ez. Artistak dira beraien musikaren ekoizleak. Nik beti Soinu Teknikari bezala sinatzen dut, nahiz eta hainbatek beste zerbaizat hartzen nauen. Hori teknikari normal batek lagunduko liekeena baino gehixeago laguntzen eta bideratzen ditudalako da.

Azkarateko estudioa muntatzeko zein elementu tekniko hartu zenituen kontuan?

Orain dela 12 urte muntatu genuen eta garai hartarako iraultza teknologiko txiki bat izan zen. Hemen ezezagunak ziren automatismoak eta soinu kontrolak egin zituzkeen. Orain erabat berritzen ari gara, garai hauetara moldatzeko.

Lanean daramazkizun urte hauetan teknologien iraultza ezagutu duzu. Asko aldatu al da lan egiteko modua?

Orain dela 25 urte grabaketak egin ahal izateko 30 mi-



lio behar zenituen edo norbaitek jarri behar zituen zure orde. Gaur egun estudioa ez da nahitaezkoa. Artistek leku hauen gero eta behar gutxiago dute. Askok beraiek etxean dute estudioa. Gaur egun musika jaiotzen den lekuan bertan grabatu dezakezu, entsegu lokalean, kalean, ohe ondoran... Eramangarritasuna eta ekipoen prezioa dela eta, neronek eta honetan ari den edonork edozein lekutan lan egin dezake.

Audio txartela duen ordenagailu eramangarriak grabaketarako arlo teknologikoaren beharra bete dezake. Honi mikrofono batzuk gehitu, bozgorailu batzuk ere bai eta ikasteko ilusioz gutxienez 10 urteko esperientziarekin osatzen badu-

gu, ekoizketa-teknikari edo nahi dugun izena hartzeko moduan gaude. Ondoren dator atalik zailena: denbora askoan lan onak egitea, jendeak balorea emateko eta gure zerbitzuak eskatzen hasteko.

Musikariak zorrotzak al dira? Zein neurritan parte hartzen dute lanaren azken emaitzan?

Artista guztiak dira oso zorrotzak beraien lanarekin. Horretan ez dago alderik, baizik eta lana bideratzeko gauzak argi izatean. Musika-riek argi badute, batez ere zer ez duten nahi, ederra da beraiekin lan egitea. Baina musikaria zalantzaz beteta badago edo lortu nahi duena bere ahalmenaren oso gainetik badago, grabaketa saioak eroaldi

bihur litezke.

Multinazionalen emaitza ez diren artistak (euskaldun gehienak), beraiek egiten dute produktore lana eta tekniko bezala zure zereginetik asetzen dituen atala aukeratzen dute. Multinazionalak lanaren emaitza ziurtatuko dien ospedun ekoizleak kontratatzearen zale izaten dira, batez ere artista berrien aldeko apustua egiten dutenean.

Esperientziadun artistek berriek baino argiago dituzte gauzak eta laguntza gutxiago behar dute, edo ez du zerikusirik?

Ez du zerikusirik. Nahasmenean bizi dena eta marea-tzen zaituena, horrelakoa izaten da bizitza guztirako. Aldiz, zenbait hasiberri zoragarriak dira lanerako. Le-

ZAHARRA • BERRI

IGELTSEKITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida

943 180 372

651 700 439

aiakoerrota@terra.es

ATAUN



Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatuak

SOLOZABAL

AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

hen ezin nuen hori egin, baina, orain ez ditut lanak estiloarengatik edo balizko kalitatearengatik aukeratzeko, baizik eta artistarekiko enpatiarengatik. Inguru atsegina sortzen dakien jendearekin lana egitea gustatzen zait.

‘Egia aitortuz’ zergatik joaten dira musikariak Azkaratera grabatzera: teknikoarengatik ala inguruaren edertasunarengatik?

Azkaratekoa bezalako estudioak asko daude alde guztietan. Ni ziur nago munduko mami eta jogurt onenak ditugulako etortzen direla. Horretan bai inork ezin duela lehiatu herri txiki honen.

Zenbat disko grabatu dituzu? Zein izan da salduena?

Ez dakit eta ez zait axola, baina urteko 12 disko 30 urtetan biderkatuz gero, ez zara oso urruti ibiliko.

Salmenten gaiak arduratzen al zaitu?

Ez nau batere arduratzen. Salmentetan bakarrik pentsatuz egiten den musikak normalean oso soinu txarra du. Nota guztiak zehaztasun handiarekin pentagraman antolatuz egiten den musikak batzuetan denbora baterako bizia izaten du. Ni erakartzen nauen musika pentsatu gabeko jarioan atera eta adimenak konturatu gabe bideratzen duena da. Hori izaten da denboran zehar irauten duena, beti ere zabalkunde bideekin bat egitea lortzen badu. Ezagutzen den sortzaile handi bakoitzeko, inoiz izango ez diren hainbat daude eta izan nahi ez duten beste asko ere bai. Beraien bila joan beharra dago. Abeslari handiak entzutea gustatzen zait, baina inoiz ere ez ditut miresten, ezta txalotzen ere; soilik eginkizun hori betetzeko ukituak izatearen zortea eduki dute.

Nola ikusten duzu gaur



Sormen ahalmena izpiritu kezkatien eta amestien buru gainean pausatzen da, beti bizimodu finkotik ihesi, ezezagunaren bila dabilzanengan.



egungo euskal musika?

Uste dut momentu honetan oso jende berri gutxi dagoela sorkuntzaren dohaina berezkoa duena. Krisiaz asko hitz egiten badugu ere segurtasun eta ekonomi gehiegikeriaren garaia bizi dugu. Gazteak gaitz honek jota jaio eta hazten dira, honen berotasuna eta segurtasuna oso kaltegarria da sorkuntzarentzat.

Sormen ahalmena izpiritu kezkatien eta amestien buru gainean pausatzen da, beti bizimodu finkotik ihesi, ezezagunaren bila dabilzanengan. Historiako askak kontatzen dituzte eta edozein artistaren diskorik onenak bizitzako zalantza uenetan sortuak izan dira. Eta arrakasta lortzean finkatu diren sortzaile gehienak sormenaren iratxoak utzi egin ditu, beraien atetik dirua eta egonkortasun aspergarria sartu diren unean.

Hemen oraindik badaude, hain ingurune ekonomiko gogorrean irauteagatik, txalo bero bat merezi duten betiko artistak. Agian artearen benetako presoak dira bizirauten dutenak. Gainontzekoek, salmentetan asko pentsatzen dutenak, beste arlo batzuetan zeregin errentagarriagoak bilatzen dituzte.

Zein aholku emango zenioke lehen aldiz diskoa grabatu behar duenari?

Pentsa dezatela lehen hartu-emanen izateko ea beharrezkoa duten, kasu horretan energia kalitatea baino garrantzitsuagoa da. Gaur egun edozeinek dauka grabaketa egokia egiteko beharrezkoa duen hurbileko norbait. Bila dezatela inguru egokia, pertsona jatorrekin. Batzuetan leku hori ez da egoten prezeski arrotzen estudio batean. Baina emaitza profesionala nahi badute, nahasketa eta masterizazioa esperientzia duen eta bere lana ondo ezagutzen duen norbaitek egin beharko die.

Fermin Muguruzaren azken diskoa

Fermin Muguruzaren azken lanean zu ere protagonista izan zara. Estudio eramangarria muntatu eta munduan zehar grabatu duzue. Nolakoa izan da esperientzia? Nola sortu zen ideia?

Estudio eramangarria ez da horretarako sortu, dagoeneko ba genuelako erabili dugu. Ferminen mundu guztian ditu musika harremanak. Nik beste hainbat artistei bezala edozein lekutan grabatzeko egiazko aukerei buruz hitz egin nion, berak kontutan hartu zuen eta bere aurreko jira probestu genuen gerora diskoa izango zena aurreratzen hasteko.

Zein ezaugarri ditu estudio eramangarriak?

Grabatzeko eta editatzeko balio duen ordenagailu bat, horretarako software egokiarekin, instrumentu bat baino gehiago aldi berean konektatzeko sarri-irteerak dituen kanal anitzeko mikrofono-txartela eta bai guk eta baita musikariek ere grabatzen ari garena entzuteko aurikularrak. Mikrofonoak eta hauen oinak ere behar dira eta bozgorailuak baditugu hobeto. Honi beharrezko kabletza gehitzen badiogu nahikoa da. Osagarriak aukeratzeko garaian tentsio aldaketa automatikoko sistemen aldeko apustua egin genuen, bateriarekin funtzionatu badezakete hobeto. Eta batez ere ekipoa egonkorra eta arina izateari eman genion lehentasuna, asko mugitzeko asmoa baikenuen.

Zein zailtasun izan duzue?

Ohikoak eta ekidin ezinak direnak. Tresneria teknologikoa hegazkinez eramateko garaian, hainbat gauza delikatuak direla eta, ezin dira fakturatu.



Batzuetan kontroletan ez dela leheritzen azaldu beharra izaten da, abesteko erabiltzen diren tresnak direla. Gainontzean, arazo gutxi izan ditugula onartzen dut. Gakoa inorengandik gehiegi ez itxarotea da, eta lortutakoa eskertzea. Grabaketarako gutxieneko plangintza genuen eta beti gaingitzen genuen.

Zer lortu duzue?

Susmoa genuena baieztatu dugu, ho-

be da jendeari mugarik gabe adierazten uztea. Abesti bat hainbat kolaboratzaileekin eraiki behar denean, ohikoena musika ekoizleak gaia antolatu eta musikari bakoitzari dagokion lana erabakitzea izaten da: hemen gitarra bakarrik grabatzen dugu, hemen haize instrumentuak hasten dira, hemen koroak, gero berriz ere ahotsa sartzen da... Honela, jendeak grabatzen duenean, bere kolaborazioaren esparrua nondik nora doan esaten dion norbait dauka.

Gure kasuan Ferminen musika zirraborro soil bat prestatzen zuen, mihise zuriaren gainean pintura marra batzuk bezala. Erritmo soil bat gitarra akorde batzuekin nahiko izaten zen, ezta abestiaren nondik norakoa bideratuko zuen ahozko zati bat ere. Batzuetan musikariek ez zekiten zein lanetarako ari ziren beraien kolaborazioa egiten. Gehienak galdetu gabe egiten zuten ekarpena, soilik entzun, jarioari bidea egiten utzi eta bakoitzak, bere senaren arabera, iruditzen zitzaion lekuan interpretatzen zuen. Inondik ere ez genuen artista blokeatzen, hau edo hura egitera bultzatuz.

Azkenean jende oso ezberdinak margotutako koadro asko genituen esku artean. Gure lana bakoitzaren onena iruditzen zitzaiguna aukeratu eta abesti batera eramango gaituen harmonia ordena taxutzea izan zen. Puzzlea osatzen genuen heinean abestiak deskubritzen joan ginen eta horrek zirrara sortzen zigun.

Berriro egingo al zenuke?

Noski baietz. Elkarrekin egin dugun lanik dibertigarriena eta sormenezkoena izan da.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ANDRAITZ
Fisioterapia Zentroa

Errehabilitazioa
Masaje terapeutikoa
Kirol masajeak
Lunbalgiak eta ziatalgiak
Drenaje linfatikoa
Kinesiologia

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Ordutegia:
astehentik
ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32

Beasain-Ordizia

Antzerki Garaia hasi da

Urte berriarekin batera, Antzerkia izaten da protagonista ostiraletan, Beasainen eta Ordizian. Zortzi antzezlan izango dira, launa, herri bakoitzean. Sarrerak 10 euro balioko du. Dena den, denboraldi osorako abonoa eros daiteke, 60 euroren truke. Urtarrilaren 9an, 'Ate-joka' lanarekin hasi zen aurtengo egitaraua. Gainerako egitaraua duzue jarraian:

Urtarrilak 16, ostirala:

'El apagón'. Beasaingo Usurbe Antzokian. 22:15ean. Taldea: Kanpingags. Zuzendaria: Lander Iglesias. Aktoreak: Ramon Ibarra, Asier Hormaza, Alfonso Diez, Itziar Ituño, Ainhoa Garai, Klara Badiola, Isidoro Fernandez, Asier Sota eta Fede Badiola.

Otsailak 6, ostirala:

'Sexo gratis'. Ordiziako Herri Antzokian. 22:15ean. Taldea: Kunka!. Zuzendaria: Eloi Beato. Aktoreak: Angeles Argudo, Josean de Miguel, Ramon Monje, Belen Nevada eta Iñigo Salinero.

Otsailak 13, ostirala:

'Lola ikusten baduzu esan aberatsa dela'. Beasaingo Usurbe Antzokian. 22:15ean. Taldea: Ados Teatroa. Zuzendaria: Garbi Losada. Aktoreak: Lierni Fresnedo, Kandedo Uranga eta Ainhoa Aierbe.

Otsailak 27, ostirala:

'Ohean'. Ordiziako Herri Antzokian. 22:15ean. Taldea: Maskarada. Zuzendaria: Carlos Panera. Aktoreak: Aitor Beltran eta Matxalen de Pedro.

Martxoak 13, ostirala:

'Maldito Parné'. Beasaingo Usurbe Antzokian. 22:15ean. Taldea: Glu Glu produkzioak. Zuzendaria: Patxi Perez. Aktoreak: Ana Perez, Pilar Guerra, Osmar Vazquez, Miriam Cabeza eta Mari Cruz Melgosa.

Martxoak 27, ostirala:

'Los Angeles no tienen hélices'. Ordiziako Herri Antzokian. Taldea: Dani Perez. Zuzendaria: Dani Perez. Aktorea: Dani Perez.

Apirilak 3, ostirala:

'Ahuntza... nor den Sylvia?'. Beasaingo Usurbe Antzokian. 22:15ean. Zuzendaria: Karlos Zabala. Aktoreak: Ramon Agirre, Isidoro Fernandez, Ane Gabarain eta Asier Oruesagasti.

Beasain

Neguko VII. Bertsopaper lehiaketa

Beasaingo Arrano Kultur Elkartek, Beasaingo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, Neguko VII. Bertsopaper lehiaketa antolatu du. Lehiaketa bi talde edo adinetan banatua dago.

● **A taldea:** 2009an 18 urte baino gutxiago beteko dituztenak. Gutxienez 5 eta gehienez 8 bertso jarri behar dituzte talde honetakoek. Irabazlearentzat 380 euro egongo dira zain.

● **B taldea:** 2009an 18 urte baino gehiago beteko dituztenak. Gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso jarri behar dira. Irabazleak 700 euro jasoko ditu. Goierriko onenarentzat 240 euroko saria egongo da.

Partehartzaileek nahi adina bertso sorta bidal ditzakete lehiaketara. Bertsoak gai eta doinu librean jarriko dira bai maila batean zein bestean. Dena den, ezinbestekoa da sortaren doinuaren izena argi adieraztea. Sari banaketa, martxoan egingo den bertso saioan egingo da.

Lanak aurkezteko epea otsailaren 22an bukatuko da. Lanak bidaltzeko helbideak: Beasaingo Kale Nagusia 12 edo negukolehiaketa@gmail.com

Zegama

Bi ikusentzunezko

Urte berriarekin batera, bi ikusentzunezko aurkeztuko dira Zegaman.

Urtarrilak 15, osteguna:

19:30ean: 'Tobera Musika Eskola. 20 urte zurekin' izenburudun DVDa aurkeztuko da Kultur-Etxean. Ikus-entzunezko honek ikastegiaren historia errepasatzen du, testigantzak bilduz eta urteotako emanaldiei tarte zabala eskainiz. Urtarrilaren erdialdetik aurrera, 4 eurotan egongo da salgai. Eskaerak Toberako zuzendaritzakideei edo irakasleei egin behar zaizkie, edo tobera-musika@terra.es helbidea erabiliz.

Urtarrilak 28, astelehena:

19:30ean: 'Zegama 1936-1995' 2. atala Joxe Mari Artola-ren ikus-entzunezkoa Kultur Etxean.



ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako
ogi naturala

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muñoz, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxue:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

☎ 943 80 10 66 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak **ZEGAMA**

Goierri

Goienizen ziklo berria

Urtarrilarekin batera, Goieniz zine klubak ziklo berria jarri du abian. Ohi bezala, ostegunetan izango da, Beasaingo Usurbe antzokian, gaueko 9etan. Sarrerak, 3,5 balio du. Ziklo osorako abonauak ere salgai daude, 15 eurotan. Apirilaren 2ra bitartean prestatu duten karteldegia duzue jarraian.

- **Urtarrilak 22:** 'Tropa de Élite'. Zuzendaria: Jose Padilla.
- **Otsailak 5:** 'Rios y Mareas'. Zuzendaria: Thomas Riedelsheimer.
- **Otsailak 19:** 'Mil años de oración'. Zuzendaria: Wayne Luang.
- **Martxoak 5:** 'Un verano en la Provenza'. Zuzendaria: Eric Guirado.
- **Martxoak 12:** 'Aliento'. Zuzendaria: Kim Ki-Duk.
- **Martxoak 26:** Film Kuttuna: 'Quiereme si te atreves'. Zuzendaria: Yann Samuell.
- **Apirilak 2:** 'La edad de la ignorancia'. Zuzendaria: Denys Arcand'.

Beasain

Haur zinea

Larunbatetan, arratsaldeko 5etan, Beasaingo Usurbe Antzokian, haurrentzako zinea izango da urtarrilaren 17an hasita. Sarrerak hiru euro balioko du. Jarraian duzue egitaraua:

- **Urtarrilak 17:** 'Olentzero eta oparien ordua'.
- **Urtarrilak 24:** 'Perez Sagutxo 2'.
- **Urtarrilak 31:** 'Winx, erreinu galduaren sekretua'.
- **Otsailak 7:** 'Ahatetxo itsusia eta ni'.
- **Otsailak 21:** 'RH + Sevillako banpiroa'.
- **Otsailak 28:** 'Basoko izpiritua'.
- **Martxoak 7:** 'Shin Chan eta helduen inperioa'.
- **Martxoak 14:** 'Dubidoso magoa'.

Beasain

San Sebastian jaiak Garinen

Urtarrilak 24, larunbata:

13:00etan: Kanpai-bueltak eta altxafuegoak.

14:00etan: Herri bazkaria, Muñogain auzo-elkartean.

Ondoren: Mus txapelketa (8 bikotek hartuko dute parte eta bazkal garaian egingo da izen ematea).

18:00etan: Haur jolasak, auzoko pilotalekuan.

Arratsaldean: Josu eta Aiora trikitalariak.

Urtarrilak 25, igandea:

10:30ean: Goiz-eresia Beasaingo Udal Txistulariekin.

11:00etan: Meza Nagusia. Beasaingo San Martingo Abesbatzak eta herritarrek Misa de Angelis abestuko dute.

Ondoren: Kanpai jotze saioa, Areantzako Kanpaijole Eskolako kideen eskutik.

12:15ean: Urretxuko Patxi Aranbarriren eta Ipiñarrieta baserriko idi-pareak eta Ezkio-Itsasoko gizon-probako taldeak indar erakustaldia egingo dute.

Eguerdian: Matxinbentako Matxin zestagina arituko da jendaurrean eta Beasaingo Udal Txistulariek joko dute.

Idiazabal

XXIX. Herri krosa

San Blas jaiak badatozela adierazten duen ekitaldi nagusia izango da urtarrilaren 25ean, Idiazabalen: XXIX. Herri krosa. Goizeko 11etan, benjaminak, alebina eta infantilak arituko dira lasterketa. 12:00etan hasiko da kadeteen eta helduen proba. 10.182 metroko ibilbidea egin beharko dute. Izena aurrez ematea eskatzen dute antolatzaileek. Bi bide daude horretarako: www.herrikrossa.com edo 943-187099 telefono zenbakia (16:00etatik 18:00etara).

Arratsalde partean, kirol gehiago izango da: iluntzeko 7etan, koadrila arteko herri kirol saioa izango da pilotalekuan.

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldean)
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK

INGELERA:

Maila guztiak, PET, First Certificate, mintza praktika

Eskaintza berria: **FRANTSESA**

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO

Tel.: 943 164 846

627 505 687 (instalakuntzak) - 670 471 106 (mantenimendua)



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Mantenimendua
- Telekomunikabideak



Gabiriako gazte taldea 1935. urte inguruan

Goiko ilaran: txapelarekin ageri dena: Eugenio Azarola (Mandiola).

2. ilaran: Xerafin Irrarazabal (Zuazola grakoa), Ramon Igarzabal (Merkategi), Patxi Alustiza (Oñatibi haundi), Felix Oiarbide (Bidarrota), Joxe Mari Igarzabal (Merkategi), Santiago Agirrebengoa (Otsategi), ezezaguna, Roke Oiarbide (Bidarrota), Patxi Murua (Alkaintxiki, txapelik gabe dagoena), Manuel Murua (Alkaintxiki), Joxe Telleria (Madariaga goena), Antonio Arratibel (Zuazola garakoa), Guillermo Gabilondo (Madariaga barrena) eta ezezaguna.

3. ilaran: Tomas Arazola (Mandiola, akordeoilaria), Antonio Arzelus (akordeoilaria), Martin Urkiola (Aunditegi), Tomas Uriá (Arane haundi) eta Antonio Ariztimuño (Izar barrena).

Beheko ilaran: Anizeto Salsamendi (Astiazaran), Joxe Antonio Ormazabal (Agerre), Joxe Mari Intxausti (Igeribarazpi), Pedro Ariztimuño (Igeribar), Rexurrezion Arozena (Igeribarazpi), Eugenio Murua (Izar haundi) eta Lukas Uliando (Urkiztegi).



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak


Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Goierri + hitza

GOIERRIKO

Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ Goierri 27 euro Egin ☒ bat aukeratutako kaxan ☐ Goierri hitza 67 euro

☐ Goierri + GOIERRIKO hitza 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Uribalde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: 902 82 02 01

INAUTERIAK 2009



MOZORRO DENDA

Elbarrena industrialdea - ZALDIBIA
Tel.: 943 888 232
www.jaiakdenda.com - jaiak@jaiakdenda.net

Ordutegia:

Astelehenetik larunbatera: 10:00etatik 13:00etara
15:00etatik 20:00etara

UMEEN MOZORROAK

Majori,12 - ORDIZIA

